

## DATU PERTSONALEN KONFIDENTZIALTASUN- ETA BABES-KONPROMISOA

2020KO XXXXXAREN XX(E)KO KONTRATUAREN GEHIGARRIA, SPRI-ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIEATEAREN (aurrerantzean, "SPRI") ETA ..... (R)EN ARTEKOA, "BASQUE CYBERSECURITY CENTRERAKO AZPIEGITURA-HORNIDURA, DATUAK AZPIEGITURA BERRIRA MIGRATZEA ETA HIPERKONBERGENTZIA-ZERBITZUAK HORNITZEKO"

Bilbon, 2020\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_ (e)an.

.....jaunak/andreak, bere  
izenean/.....konpainiaren izenean edo hura ordezkatzuz  
(aurrerantzean **zerbitzu-emailea**.).....,

### ADIERAZTEN DU:

I.- SPRIk eta zerbitzu-emaileak .....(e)n kontratu bat sinatu zutela, zeinaren helburu bakarra baita "BASQUE CYBERSECURITY CENTRERAKO AZPIEGITURA-HORNIDURA, DATUAK AZPIEGITURA BERRIRA MIGRATZEA ETA HIPERKONBERGENTZIA-ZERBITZUAK HORNITZEA"

II.- Esandako kontratu-harreman horren ondorioz, zerbitzu-emaileak SPRIk edo haren partaidetzako sozietateek garatzen dituzten jarduerari eta negozioei buruzko dokumentazioa eta informazioa eskura dezake, eta, bereziki, konfidentzialtasuna ziurtatuta eduki beharra daukaten datu pertsonalak eskura ditzake.

III.- Ulertzen dituela konfidentzialtasun-obligazio horiek ez betetzeak eragin ditzakeen ondorio zibilak eta penalak, baita SPRIri edo haren partaidetzako sozietateei eragindako kalteen gaineko erantzukizuna ere.

IV.- Aurreko guztia ikusirik eta konfidentzialtasun-obligazioak betetzeko berme gisa, honako **KONPROMISO** hau hartzen duela bere gain, kontuan hartutako honako

### KLAUSULAK

#### 1.- DATU PERTSONALEN BABESA

SPRIk zerbitzu-emailearen esku ipiniko du –aurrerantzean, tratamendu-eragilea–, datu pertsonalak babesteko eremuari lotuta dagoen informazioa.

Tratamendu-eragileak SPRIren titulartasuneko informazioa eskuratzearen arrazoia bakarra izango da: hiperkonbergentzia-azpiegituraren hornidura eta hura ezartzeko zerbitzuak ematea, eta datuak Basque Cybersecurity Centrerako azpiegitura berrira migratzea.

Baldintza horietan, eta emandako argibideekin eta aurreikusitako xedearekin bat tratatzen badira datuak, eskuratze hori ez da datuak jakinarazte gisa hartuko.

### **1.1 Tratamendu-eragilearen obligazioak eta eskubideak:**

Datu pertsonalak babesteko indarrean den legedian ezarritakoaren arabera, tratamendu-eragileak:

- a) Adierazitako xederako bakarrik tratatuko ditu kontratu honen arabera eskuratutako datu pertsonalak, eta arduradunaren argibideei jarraikiz, bermatuz bere ardurapeko langileek betetzen dituztela argibide horiek.
- b) Bermatuko du datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonak hartu dutela konpromisoa konfidentzialtasuna gordetzeko eta datu horiek hirugarrenei inoiz ez emateko, nola eta ez daukaten tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena, legez onar litezkeen kasuetan. Inoiz ere ezingo ditu erabili datuak xede propioetarako. Datu pertsonalak eskura ditzaketen pertsona guztiek atxiki beharko dute tratamendu-arduradunaren eta -eragilearen artean sinatutako konfidentzialtasun-hitzarmenera.
- c) Eragileak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera igorri behar baldin baditu datuak, Batasuneko Zuzenbidearekin edo aplikagarri zaion estatuko kidearen zuzenbidearekin bat, arduradunari alde aurretik jakinaraziko dio eskakizun hori, nola eta zuzenbide horrek ez dion galarazten, interes publikoko arrazoi garrantzitsuak direla medio.
- d) Sekretu-betebeharra gordetzea, enkargu honen bidez eskuratu dituen datu pertsonalen gainean, baita haren xedea amaitzen denean ere.
- e) Arduradunari laguntzea, tratamenduaren izaera kontua izanda, antolaketa-neurri eta neurri tekniko egokien bidez eta posible den guztietan, interesatuen eskubide-egikaritzeak xede dituzten eskaerei erantzuten, baita bere obligazioak eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren edo indarrean den legeriarenak betetzen ere.
- f) Tratamenduaren arduradunak espresuki ematen badio baimena eragileari kontratu honetako zerbitzu bat edo batzuk azpikontratatzeko, eragileak idatziz jakinarazi beharko dio arduradunari, eta argi eta garbi identifikatu beharko du azpikontratista, arduraduna jakinaren gainean ipiniz.  

Azpikontratista ere tratamendu-eragiletzat hartuko da, eta behartuta egongo da dokumentu honetan tratamendu-eragileari ezarritako eskakizunak betetzera, baita arduradunak adierazten dituen argibideei jarraituz ere. Hasierako eragileak jarraituko du izaten arduradun oso tratamenduaren arduradunaren aurrean, obligazioak betetzeari dagokionez.
- g) Arduradunak hautatuta, eragileak datu pertsonal guztiak ezabatu edo bueltatu beharko ditu, tratamendu-zerbitzu guztiak eman ostean, eta suntsitu egin beharko ditu egindako kopia ere, nola eta ez den eskatzen datu pertsonalak gordetzea Batasuneko Zuzenbidean edo delako estatu kidekoan; kasu horretan, jakinarazi egin beharko dio inguruabar hori arduradunari.
- h) Arduradunaren esku ipiniko du beharrezko informazio guztia, erakusteko betetzen direla artikulua honetan ezarritako obligazio guztiak; halaber, ikuskapenak egiten utziko eta

lagunduko du, barnean hartuta arduradunak edo esandako arduradun horrek egindako ikuskaritzak ere.

- i) Tratamenduaren arduradunari jakinaraziko dio, berandu gabe, bere ardurapeko datu pertsonalek segurtasun-uraketaren bat izan dutela jakinez gero, baita gorabehera hori dokumentatzeko eta komunikatzeko informazio garrantzitsu guztia ere.
- j) Bermatuko du datu pertsonalak tratatzeko pertsona baimenduek jasotzen dutela datu pertsonalak babesteko beharrezko prestakuntza.
- k) Bermatuko du datuak babesteko ordezkariak, edo, halakorik ezean, pribatutasun-arduradunak modu egokian eta garaiz parte hartzen dutela datu pertsonalak babestearekin lotutako auzi guztietan.
- l) Bat egingo du bere jarduera sektoreko pribatutasunaren alorrean izan litekeen jokabide-kodearekin, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak, Europako erakundeak edo kontrol-agintaritzak baliokideak onartuarekin, alegia.
- m) Tratamenduaren jarduera-erregistro bat eramango du, interesatuaren eskubide eta askatasunetarako eta/edo sarritan arriskua sorraraz dezaketen datuak tratatu behar izanez gero, edo datu-kategoria bereziak tratatzea eskatzen dutenak eta/edo kondenekin eta arau-hausteekin lotutako datuak dituztenak.
- n) Datu pertsonalak babesteko indarrean den araudian ezarritako eskubideak baliatzeko eskaerei erantzungo die, nahiz eta baliatzeko eskaera hori tratamenduaren arduradunari zuzendua den.

## **1.2. Interesatuak eskubideak baliatzea:**

Interesatuak eskaeraren bat bideratzen baldin badu edo datu pertsonalak babestearekin lotutako indarrean den araudian ezarritako eskubideren bat egikaritzen badu, tratamendu-eragileak eskatutako eta egindako jardueri buruzko informazioa eman beharko dio, beranduenik ere eskaera jaso eta hilabeteren barruan; epe hori beste bi hilabetez luzatu ahalko da gehienez ere beharrezkoa izanez gero, kontuan izanik eskaeraren konplexutasuna eta eskaeren kopurua.

Era berean, tratamendu-eragileak ez balu abiaraziko interesatuaren eskabidea, berandu gabe jakinaraziko dio, gehienez ere eskaera jaso eta hilabetez epearen barruan, zer arrazoi dela eta ez duen aurrera egin; halaber, adieraziko dio aukera duela erreklamazioa ipintzeko kontrol-agintaritzak baten aurrean, baita errekurtsu judicial bat jartzeko ere.

Eskubidea egikaritzeko eskaerari interesatuak erabilitako formatu berean erantzungo zaio, nola eta ez duen eskatzen beste inolabait jokatzeko.

## **1.3 Datuen nazioarteko transferentzia:**

Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak egiteko, ezinbestekoa izango da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak bildutako eskakizunak betetzea, edota beharrezkoa izango da halakoak arautzen dituzten araudi nazionalak edo Erkidegokoek eskatutakoa betetzea.

Datuen nazioarteko transferentzia bat eginez gero edo egitea aurreikusiz gero, tratamendu hori zerbitzu-prestazioko kontratu honetatik bereizita arautu beharko da, eta loteslea izan beharko du bi aldeek artean, sinatzen den unetik aurrera. Esandako erregulazio hori eranskin gisa jasoko da, kontratu honi atxikita.

## **1.4 Datuen segurtasuna urratzea:**

Kontrol-agintaritzak baten instrukzioa, komunikazio horiek arautzen dituen estatuko legedi baten garapena edo egintza eskuordetu bat den bitartean, datu pertsonalen segurtasuna urratuz gero, tratamenduaren arduradunak eta/edo tratamendu-eragileak jakinaren gainean ipiniko dute, berandu gabe, eskumena duen Kontrol Agintaritzak –ahal izanez gero, gehienez ere 72 orduren barruan, gertakari haren berri izan ostetik aurrera–.

## **2.- IRAUPENA**

Dokumentu honetan aurreikusitako konfidentzialtasun-obligazio guztiek denbora-mugarik gabe iraungo dute, zerbitzu-emaileak SPRIrekin kontratu-harremanak bukatuta ere.

## **3.- ZIGOR-KLAUSULA**

Zerbitzu-emaileak ez badu betetzen konfidentzialtasun-konpromiso honen arabera dagokion edozer obligazio, zerbitzu-emailea behartuta egongo da SPRIri kontratatutako zerbitzuen prezioaren % 15aren zenbateko baliokidea ordaintzera, penalizazio gisa.

Zerbitzu-emaileak espresuki aitortzen du proportzionatua eta egokia dela klausula honek aipatzen duen penalizazioa.

Zehapen horrek, halere, ez du ordeztuko ez-betetzeak eragindako kalteei eta galerei eman beharreko ordaina, eta exijitu ahal izango da, SPRIk betetzea eskatzen badu baita kontratatutako zerbitzuak emateari uzteko eskatzen badu ere.

## **4.- UKO EGITEA**

Ez da berez uko egitetzat hartuko konpromiso honetan jasotako eskubideak, ahalordeak edo pribilegioak ez egikaritzea edo egikaritzean atzeratzea; era berean, ez da eragozpen izango esandako eskubideak, ahalak edo pribilegioak baliatzea, indibidualki edo partzialki, etorkizunean haiek egikaritzeko.

## **5.- ALDAKETAK**

Ez da baliozkotzat hartuko konfidentzialtasun-konpromiso honen aldaketarik, nola eta ez den idatziz jasotzen eta ez duten SPRIk eta zerbitzu-emaileak sinatzen.

## **6.- BALIOGABETZE PARTZIALA**

Edozer auzitegik edo agintaritzak baliogabe, legez kanpoko edo egin ezinezko aitortuko balu konfidentzialtasun-konpromiso honetan jasotako edozer xedapen, aitorten horrek ez die eragingo agiri honetan jasotako gainerako xedapenen baliozkotasunari, legezkoatasunari eta egingarritasunari. SPRIk eta zerbitzu-emaileak fede onez kontsultatuko eta negoziatuko dute elkarrekin, klausula baliozko eta egingarri bat adosteko, baliogabetzat, legez kanpokotzat edo ez-egingarritzat jotako klausula modu arrazoizkoan ordeztuko, konfidentzialtasun-konpromisoaren espirituari jarraikiz.

## **7.- KOMUNIKAZIOAK**

Aldeen arteko komunikazio guztiak idatziz egin beharko dira, postaz, telefaxeaz edo posta elektronikoz, honako helbide hauetara idatzita:

SPRI

(a) Helbidea: [●]

(b) Norentzat: [●]

Zerbitzu-emailea

(a) Helbidea [●]

(b) Norentzat: [●]

(c) Faxe: [●]

(c) Faxe: [●]

(d) Helbide elektronikoa: [●]

(d) Helbide elektronikoa: [●]

Helbide horietara helarazitako komunikazio guztiak egokiro egindakotzat hartuko dira, nola eta hartzaileak ez dion aldez aurretik kontrako aldeari jakinarazi, gutxienez 10 egun baliodunen barruan, helbidea aldatu duela.

Azaldutako guztiarekin adostasuna adieraziz, agiri hau sinatzen dut goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

..... (Zerbitzu-emailea.....

.....

.....(kargua).....